



Gogoeta

Ezin da benetako ikasle misiolari izan liturgia ospatu gabe, hor Mai-suari harrera egiten zaiolako, Berarekin eraldatzen delako eta bere presentzia bizia experimentatzen delako. Eta ezin da benetako liturgia bizi misioa bere gain hartu gabe, Kristok ez baikaitu elikatzen geldirik egoteko, Bera bezala bidaliak izateko baizik.

Eukaristia misiolari dizipuluaren bihotza da. Eukaristia ez da misioko etenaldi bat, bere abiapuntu eta osotasuna baizik, bizitakoa bizi arazi egin behar baita, munduaren erdian lekukotasuna delarik. Baina misioak liturgiara ere eramaten du; izan ere, misioan irten den dizipulua, hura bete ondoren, ospakizunera itzultzen da eskerrak ematera, bere indarra berritzera eta eraldatzera irekitzera. Bihotzean ekarriko ditu Ebanjelioa partekatzen aritu diren guzti horiek. Munduan bizitu duena aurkezten du aldarearen aurrean.



Galdera

1. Liturgiak nire ikasle misiolari izaera elikatzen duela sentitzen al dut?
2. Liturgian bizitakoa nire egunerokoan azalarazten al da?



Bukaerako otoitza

Jesus jauna,
zure Hitzaren eta zure Eukaristiaren mahaian
nire bihotzeko sua pizten dut.

Bidal iezadazu zure poza kontsolamenduaren zain daudenekin partekatzerara,
zure argia ilunpetan dabilzanekin,
zure bakea bakardadean bizi direnekin.

Nire bizitza liturgia bizi bat izan dadin,
goretsi eta iragarriko zaituen eskaintza
maitasun- eta zerbitzu-keinu bakoitzean.
Amen.

GURE AITA





Hasierako otoitza

Jaunaren hitza entzun ta gurea egiteko prestatuko gara isiltasun une bat eginez eta Espiritu Santuari dei eginez.

Espiritu Santua, zatoz!
Ireki gure bihotza
Jaunak Idatzietan eskaintzen digun Hitzaz
entzun dezagun.

Espiritu Santua, zatoz!
Emaguzu ulermena eta iraunkortasuna
Hitza ulertzeko
eta praktikara eramateko.



Sarrera

Ikasle Misiolaria, Kristorekin tope egin duena eta hori adierazten, aldarrikatzen duena da. Ikasleak soilik ezagutzen du Maisua eta eza gutzen duenak soilik aldarrika dezake Maisua. Horrela ba Ikasle Misiolaria izateak Kristok eraldatua izatea esan nahi du (ikasle) eta berak bidalia (Misiolaria). Baina non elikatu gaitezke biderako? Non entzun dezakegu, non ikasi eta predikurako indartu gintezke? Liturgia ospakizunetan, bereziki eukaristian, ikaslea eraldatu eta osatu egiten da, Kristorekin bat eginez.



Lk 24, 13-35

Egun hartan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herririka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora.

Gertakari guztietaz mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus bera ondoratu zitzairen eta beraiekin joan zen. Baina ikasleek begiak itsu zituzten eta ez zuten ezagutu.

Jesusek esan zien: —Zeri buruz zoazte bidean elkarrekin hizketan?

Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta beraietako batek, Kleofas zeritzanak, honela erantzun zion:

—Zeu izango zara egun hauetan Jerusalemen gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!

—Zer gertatu da, bada? —esan zien hark.

Haiek erantzun zioten: —Jesus Nazaretarrarena; profeta handia zen hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; baina gure apaizburu eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutziltzatu. Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dela.

Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi

dela esan dieten aingeru batzuk agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutako batzuk ere izan dira hilobian eta emakumeek esan bezala aurkitu dute guztia; baina bera ez dute ikusi.

Orduan, Jesusek esan zien: — Bai buru gutxikoak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez ote zuen Mesiasak hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?

Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien.

Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, aurrera jarraitzeko keinua egin zuen Jesusek. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko.

Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien.

Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten, baina Jesus desagertu egin zitzairen begi aurretik.

Haiek elkarri esan zioten: «Ez al geneukan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaigunean?»

Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren; eta Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, honela ziotela: «Egia da! Piztu da Jauna eta Simoni agertu zaio».

Bi ikasleek bidean gertatua eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten kontatu zieten.



Evangelii Gaudium

24. Kanpora irteten den Eliza, lehenesten duten, murgiltzen diren, laguntzen, fruitu ematen eta ospatzen duten ikasle misiolarien elkarte da. (...) Ebanjelizatu egiten du Elizak, eta bere burua ebanjelizatzen du liturgiaren edertasunarekin, ebanjelizatze egitekoaren ospakizun baita berau eta dohaintzarako bultzada berriaren iturri ere bai.

174. Eskritura Santuak ebanjelizatzeren iturri dira. Beraz, beharrezkoa da Hitzaren entzumenean etengabe hezteak. Elizak ez du ebanjelizatzen bera etengabe ebanjelizatua ez bada. Ezin bestekoa da Jainkoaren Hitzaz «gero eta gehiago eliz egintzaren bihotza izatea». Entzundako eta ospatutako Jainkoaren Hitzak —bereziki Eukaristian entzun eta ospatutakoak— kristauak elikatu eta barne-indartzen ditu eta gai egiten dituguneroko biziaren egiazko testigantza ebanjelioa emateko. Gaingidu dugu Hitzaren eta Sakramentuaren arteko kontrajartze zahar hura. Bizia eta eraginkorra den hots egindako Hitzak, Sakramentuaren onarpena prestatzen du eta Sakramentuan iristen du Hitz horrek bere gorengo eraginkortasuna.